



Esp.-kodea: 2016SAPL0011

**UDAL PLENOA**  
**Bilkura arrunta**

**BILKURA DATUAK**

EGUNA: 2016/10/25	TOKIA Udaletxea
HASIERA ETA BUKAERA ORDUA 18:00 - 19:10	

**BILDUTAKOAK:**

- Lehendakaria: María Ubarretxena Cid (EAJ-PNV)
- Zinegotziak: Ibon Arrupe Aldecocca (EAJ-PNV)  
Juan Ramon Mendieta Garay (EAJ-PNV)  
Ander Garay Zabaleta (EAJ-PNV)  
Amaia Ceciaga Garmendia (EAJ-PNV)  
Juan Karlos Garitano Ezkurra (EAJ-PNV)  
Amaia Azpiazu Aramburu (EAJ-PNV)  
Anuska Ezkurra Zubizarreta (EAJ-PNV)  
Eneko Barberena Mondragon (EH BILDU)  
Amaia Larrañaga Galdos (EH BILDU)  
Eneko Fernandez Ortiz de Luzuriaga (EH BILDU)  
Maialen Zabaleta Madinabeitia (EH BILDU)  
Jose Luis Encinas Jose (EH BILDU)  
Itxaro Artola Lizarralde (EH BILDU)  
Oscar Garcia Horrillo (PSE-EE)  
Victoriano Fuentes Noguera (PSE-EE)  
Anabel Legaz Canflanca (PSE-EE)  
Igor Urizar Murgoitio (Baleike)  
Eva Abuin Bideburu (Baleike)  
Juan Luis Merino Sanabria (Irabazi Arrasate)
- Idazkaria: Amaia Gorrotxategi Zubizarreta
- Beste funtzionario batzuk: Iñaki Balzategi Garai, Kontuhartzailea.

**BILDU EZ DIREN UDALKIDEAK:** Urki Larrea Ibabe (EH BILDU)

**BERTARATZE** Bilkura hasi denetik bukaeraraino ez da bertaratze zein irteerarik izan.



---

Esp.-kodea: 2016SAPL0011

---

**ETA IRTEERAK:**

**M. UBARRETXENA (Lehendakaria):** Arratsaldeon denoi, beno gutxi gorabehera zinegotzi guztiak gaude hemen, eta Plenoari hasiera ematera goaz.

**1.- AURREKO BILKURAKO AKTA IRAKURRI ETA ONARTZEA.**

2016ko urriaren 4ko bilkurako akta, aho batez, onartzen da.

**M.UBARRETXENA (Lehendakaria):**

Aktaren inguruan komentariok? Oskar.

**O.GARCIA (PSE-EE):**

Arratsaldeon guztioi. Niri gustatuko litzaidake esatea akta ez deritzodala egokia Arrasateko herriarentzat, akta literalki hartuta dago eta literalki esan nahi dau interbentzio guztiak bai erderazkoak bai euskarazkoak egin diren hizkuntzan jasotzen direla.

Nik uste dut errespetuagatik Arrasateko biztanleriarekiko posible balitz egokia litzatekeela aktak euskaraz doiana euskara hutsean joatea eta erderaz doiana ba erdera hutsean joatea. Besterik ez.

Eta gustatuko litzaidake hemendik aurrera horrela etortzea.

**M.UBARRETXENA (Lehendakaria):**

Bueno ondo iruditzen baldin bazaizue beste gai askorekin egiten dugun bezala hurrengo bozeramale batzordean tratatuko daiteke gaia.

Beste komentarioren bat badago?

**J.L MERINO (IRABAZI):**

Si yo tambien viendo las actas se cogen literalmente ¿no? Entonces todo lo que digamos pierde todo el contexto lo que quieres decir si se refleja literalmente pierde todo el contexto. Muchas veces dices que he dicho ¿no?

Y es así y lo podemos leer todos y no nosotros sino los ciudadanos también yo creo que se debería de reflejar lo que en realidad se quiere transmitir no la literalidad.

**M.UBARRETXENA (Lehendakaria):**



Esp.-kodea: 2016SAPL0011

Ni nahi neban esan osteguneko bozeramaile batzordean akta jasotzeari buruz hitz egin genuela Amaiak egin zigun planteamendu bat erabaki genuen bakoitzak bere taldean ikustea eta baloratzera eta aurrerago erabaki bat hartzea eta gaur egin dituzuen proposamenak igual egun horretan ia ke aktari buruz hitz egiten genuen han egitea agian egokiagoa da gaur plenoan egitea baino ez? Osteguneko gai bat izan delako batez ere edo ez?

Bueno jakinda akta jasotzeko beste metodologia bat aztertzen ari garela eta horri buruz hitz egin genuela osteguneko batzordean eta gelditu ginela hori baloratzeko denon artean ba igual baloraketa horretan gaia ere aztertu daiteke ez? Bueno ados baldin bagaude bueno ba esan genuen bezala baloratuko dugu eta hurrengo puntura pasatuko gara

## **2.- ALKATETZAK EMANDAKO DELEGAZIOAREN BERRI EMATEA.(2015SKOR0001)**

Besteak beste, Arrasateko Udaleko Araudi Organikoaren 26.4 artikulua baitan, Udal Plenoari, Alkateak, 2016ko urriaren 6an emandako ebazpenaren berri ematen zaio:

### **ALKATETZAREN ERABAKIA N16/01802**

Alkateak 2015eko uztailaren 13ko dekretu bidez egin zituen eskuordetze orokor eta espezifikoa, besteak beste, udal Araudi Organikoaren 26.2 eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 44.2 artikuluen baitan.

Udal funtzionamenduaren hobekuntza eta izapidetzeen sinplifikazioa aztertzen ari da udal hau, eta lan horretako ondorioa da arriskutsuak izan daitezkeen animaliak udal erroldan inskribatzea eta hauek edukitzeko lizentzia emateari dagokion tramitazioa luzatu egiten dela (EAEko ekainaren 1eko 101/2004 Dekretuaren eta martxoaren 22ko 287/2002 Errege Dekretuaren arabera, estatuko abenduaren 23ko 50/1999 Legea garatzen duena, udal eskumenekoak diren izapideak), gaia Tokiko Gobernu Batzordearen eskumena delako.

Hori horrela, prozedura sinplifikatze aldera, eta normalean izapide administratibo arrunt bat dela ikusita, Legeak ematen dizkidan eskuduntzez baliatuz, honen bidez, hauxe ERABAKI DUT:

**Lehenengoa:** Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak udal erroldan inskribatu eta hauek edukitzeko lizentziari dagokion eskuduntza espezifikoa Obra, Zerbitzu, Mantentze eta Auzoak arloaren eskuordetze generikoaren barnean sartzera, Tokiko Gobernu Batzarrari dagokion eskuordetzetik aterez.

**Bigarrena:** Aldaketa honen berri ematea Oscar García Horrillo Obra, Zerbitzu, Mantentze eta Auzoak arloari dagokion eskuordetze generikoa duenari, Tokiko Gobernu Batzarrari eta osoko bilkurari honen berri ematea eta iragarki hau udal iragarki taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.



Esp.-kodea: 2016SAPL0011

### **3.- “AGITAX”; PROPOSAMENA TAXI ZERBITZUAREN 2017KO HIRI TARIFEI BURUZ. (2016ZZER0143)**

Udal Plenoak, aho batez, Obrak, Zerbitzu, Mantentze eta Auzoetako Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

AGITAX” elkarteak (Asociación Guipuzcoana del Taxi/Gipuzkoako Taxisten Elkarte) idatzia aurkeztu du, eta honetan proposatzen da, 2016. urterako onartutako hiri tarifa berberak mantentzea 2017. urterako, auto-taxi zerbitzuan.

Batetik, aurkeztutako agiriak aurkeztu ditu batzordeak eta, bestetik, Udaleko Zerbitzu Teknikoek azaldutakoa; haiek adierazten dute bat datozela elkarte biek aurkeztutako proposamenarekin, zehazki tarifak hauek izango lirateke:

	BANDERA JAISTEA	EGINDAKO KM	ITXARON ORDUA
EGUNEKOA, LANEGUNEAN*	3,5130 €	1,1005 €	21,0175 €
GAUEKOA/JAIEGUNEAN	3,5130 €	1,7553€	33,0393 €

- a) Udalbatzarrak, 2015eko urriaren 13an egindako bilkuran, 2016 urterako tarifak onartu zituen.
- b) Udalari dagokio hiri tarifen erregimena, Bidaiariak herri barruan eta herriz kanpo kotxez garraiatzeko zerbitzu publikoa arautzen duen 2/2000 Legearen 3.3 eta 17.6 artikuluen arabera, nahiz eta, geroago bidali beharko den espedientea Merkataritzako Lurralde Ordezkaritzara, era berean hark Euskadiko Prezioen Batzordeari bidaltzeko, eta azken horrek tarifak aztertuko ditu eta, hala badagokio, baimendu.
- c) Gipuzkoako Aldizkari Ofizialak, 2005eko irailaren 22an, Lurralde Antolaketa eta Sustapenerako diputatuaren Foru Agindua argitaratu zuen, 2005eko abuztuaren 23an eman zuena, eta haren bidez, taxi zerbitzua emateko, Debagoieneko Erregimen Bereziko Espazioa eratzea onartu zuen. Eta ezarritako baldintzen artean, besteak beste, tarifen bateratzea agertzen da. Aplikatu beharreko tarifa, zerbitzuaren arabera, berdina izango da osatzen duten udalerrri guztientzat.
- d) Azkenik aurkeztu dituzten agiriak aztertu eta gero, Udaleko Zerbitzu Teknikoek proposatzen dute, lehenengo, 2016an onartutako tarifak 2017an mantentzeko eskaera onartzea eta, bigarren, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Saileko Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzari bidaltzea, batetik, hasitako espedientea eta, bestetik, akordio



Esp.-kodea: 2016SAPL0011

honi buruzko ziurtagiria, aztertzen ari garen tarifak berraztertzeke espedientearen tramitazioa egiteko.

Lehen azaldutakoa aztertu eta gero, hauxe proposatu du Obra, Zerbitzu, Mantentze eta Auzoetako Batzordeak:

1.- Auto-taxiaren 2016eko hiri tarifak 2017. urterako mantentzeko proposamena onartzea, tarifa taula honetan zehazten dena:

	BANDERA JAISTEA	EGINDAKO KM	ITXARON ORDUA
EGUNEKOA, LANEGUNEAN*	3,5130 €	1,1005 €	21,0175 €
GAUEKOA/JAIEGUNEAN	3,5130 €	1,7553€	33,0393 €

2.- Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Saileko Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzari bidaltzea, batetik, tarifak berraztertzeke hasitako espediente eta, bestetik, akordio honi buruzko ziurtagiria, aztertzen ari garen tarifak berraztertzeke espedientearen tramitazioa egiteko, 2017 urterako 2016ko tarifa berberak mantenduta.

3.- Akordioaren jakinarazpena bidaltzea Debagoieneko Mankomunitateari eta “AGITAX” elkarteari.

**4.- PROPOSAMENA BAIMENTZEKO “CONSTRUCCIONES MURIAS, SA” ENPRESARI ADMINISTRAZIO EMAKIDAREN ADJUDIKAZIOA, BITERIN ETA LAUBIDEN APARKALEKUEN ESPARRUA USTIATU ETA KUDEATZEKO. (2004HOIE0004)**

IKUSITA txostena, udal idazkariak eta kontratazioko teknikariak egina, bai eta udaleko zerbitzu teknikoek egina ere.

KONTUAN IZANIK que la Administración Concursal de “GESPARK INVERSIONES 2008, SL”ren konkurtso administrazioak eskatu ziola Merkataritzaren Bilboko 2. Epaitegiari adjudikatzeko “CONSTRUCCIONES MURIAS, SA” enpresari “administrazio emakida Biterin eta Laubidean aparkalekuen esparrua ustiatu eta kudeatzeko”, eta eskaera horrekin ados agertu zela emakidaren hipoteka hartzekoduna (Banco Popular).

KONTUAN IZANIK Udalak txostena bidali ziola Epaitegiari, zeinetan baieztatzen zen “CONSTRUCCIONES MURIAS, SA” enpresak betetzen zituela ezarritako baldintzak, bai kontratuaren baldintzen agirian Arrasaten (Laubide-Garibai) aparkalekuak eraiki eta ustiatzeko, bai



Esp.-kodea: 2016SAPL0011

2015eko azaroaren 18an egindako enkantearen baldintzen 8. puntuan adierazitakoak. Kasu guztietan, Udalak gogorarazten zuen emakidaren adjudikaziodun ateraz gero, eskuratzailleak destinatu behar zuela berehala Laubide parkinga txandaka erabiltzeko.

Kontuan IZANIK Merkataritzaren Bilboko 2. Epaitegiak, 266/2016 Autoaren bidez, 2016ko irailaren 27koa, BAIMENTZEN DUELA adjudikatzea “CONSTRUCCIONES MURIAS, SA” enpresari “administrazio emakida Biterin eta Laubidean aparkalekuen esparrua ustiatu eta kudeatzeko”, 500.000 €-ko prezioan, ordaintzekoa hipoteka hartzekodunari (Banco Popular). Gainerako hipoteka zorra, GESPARK INVERSIONES 2008 SL enpresak duena Banco Popular-ekin (1.914.301,14 euro), mantenduko da kreditu arrunt kalifikazioarekin.

KONTUAN IZANIK “GESPARK INVERSIONES 2008, SL”ek gaurko egunean zorrak dituela ordaintzeke Arrasateko Udalarekin, 74.072,85 €-ko zenbatekoa (bermatuak abal bidez 120.000 €, emana bere garaian Banco Popular-ek), horien berri emango zaizkienak, dagozkion ondorioetarako, bai konkurtso administratzaileari, bai entitate abal-emaileari.

KONTUAN IZANIK, bestalde, Jarduera Protokoloaren arabera, onartua administrazio emakida horren jarraipena egiteko –Biterin eta Laubidean aparkalekuen esparrua ustiatzeko-, adjudikaziodunak aurre egin behar diola urteko kanonari; hura kalkulatzeko udal teknikariek egin dute koadro bat, non, gainera, jasotzen diren datuak ustiapenari buruz, hor sartuta balio eguneratuak egoiliar plazen prezioari buruz eta mantentze kuotari buruz.

USTIAPEN DATUAK (2017-01-01).	
<b>APARKALEKUA EGOILIARRENTZAT (BITERI ETA LAUBIDE)</b>	
- Aparkaleku plazaren balio eguneratua (2017)	14.405,09 €
- Mantentzearen hileko kuota (2017)	17,98 €/hilean
<b>KUDEAKETA ETA USTIAPENA</b>	
- Urteko kanona, Udalari ordaindu beharrekoa (2017)	8.040,85 €
- Emakida noiz hasi	15-09-2006
- Kontu hartzaile teknikoa noiz izendatu	15-09-2052
- Emakida noiz amaitu	15-09-2056
- Azken aseguru poliza noiz entregatu den Udalean	06-07-2015
- Entregatutako azken polizaren indarra amaitzea	05-07-2016
- Azken ikuskapen teknikoa noiz	21-03-2012

KONTUAN IZANIK, gainera, jarraituta Jarduera Protokoloarekin, bere garaian onartua, zeinetan zehazten diren zer aspektu ezarri ziren Baldintzen Agirian, arautzen dituen emakida eta kontratua, sinatua aldean artean, ezartzen da honi buruz adjudikaziodunak, baldintzen agiriaren 38. artikuluan xedatutakoaren arabera, sinatu behar duela aseguru poliza bat arrisku oro estaliko duena eraikinak eta haren instalazioak eman bitartean, zenbateko izendatu batez, 3.810.000 €-koa (Biteri) eta 1.550.000 €-koa (Laubide), hurrenez hurren, onuraduna izanik Udala, eragotzi gabe emakidadunak eskubidea duela ordaintan hartzeko haren kontura balio aseguruak eta ez amortizatuak.



Esp.-kodea: 2016SAPL0011

Halaber, adjudikaziodunak bere gain hartuko du primak ordaintzea, eta ondorio horretarako jarri beharko ditu udal bulegoetan ordainagiri ordainduak, urtero.

KONTUAN IZANIK, era berean, 37. pasartean ezarritakoaren arabera, -“*Ustiapena ikuskatzea*”- emakidaren baldintza partikular, tekniko, ekonomiko eta juridiko-administratiboaren agiriarena, adjudikaziodunak, bi urtean behin, behartuta dago instalazioak ikuskatzera, txosten batekin, sinaturik teknikari gaituak, jakiteko zer egoera(t)an dauden, eta bidaliko dio txosten horren kopia bat Udalari.

Azken ikuskapen teknikoa da 2012ko martxoaren 21ekoa.

KONTUAN IZANIK, azkenik, Udalak onartu behar dituen apartekuen ustiatze tarifak, eta horretarako udaleko zerbitzu teknikoek egin dutela proposamen eguneratu bat 2017ko ekitaldirako:

**Tarifak:**

1.- Tarifa arrunta:	0,036 € /minutuko	
2.- Tarifa bereziak:		
a.- Hileko alokairua, egunekoa eta berriztagarria (8:30 - 20:30, astelehenetik zapatara arte, bera barne).....	67,82 €Hileko alokairua, gauekoa eta berriztagarria	
b.- (20:30 - 8:30, astelehenetik zapatara arte, bera barne).....	51,62 €	
c.- Asteko ordainketa (24 ordu).....	42,62 €Hileko abonua, berriztagarria (24 ordukoa) .....	105,04 €

Hirigintza, Ingurumen eta Mugikortasuneko Batzordeak proposatzen dio udaleko osoko bilkurari akordio hau hartzea:

**I.-** Baimentzea “CONSTRUCCIONES MURIAS, SA” enpresari administrazio emakidaren adjudikazioa, Biterin eta Laubidean apartekuen esparrua ustiatu eta kudeatzeko, kontratuan ezarritako baldintzetan.

**II.-** Jakinaraztea “CONSTRUCCIONES MURIAS, SA” enpresari berme bat jarri beharko duela Arrasateko Udalean, 120.000 €-koa, erantzuteko bete dadin kontratu hau, “administrazio emakida Biterin eta Laubiden apartekuen esparrua ustiatu eta kudeatzeko”.

**III.-** Gogoraraztea “CONSTRUCCIONES MURIAS, SA” enpresari, ikusita zer xedatzen den goiko baldintzen agiriaren 35.5 artikuluan, txandaka erabili beharko duela berehala Laubideko parkinga (gaur Jose M. Arizmendiarrjeta plaza), gehienez ere hil batean, jakinarazpen hau jasotzen duenetik aurrera.



**Esp.-kodea: 2016SAPL0011**

**IV.-** Sinatzea administrazio agiria, administrazio emakidari buruzkoa dagokion kontratua ustiatzeko, eta ahalmena ematea, horretarako, udaleko alkate-udalburuari, edo legez ordezkatzeko duen alkateordeari.

**V.-** Onartzea Biterin eta Laubiden aparkalekuen esparruaren ustiatze kanona, 2017ko ekitaldiari dagokiona:

\* Urteko kanona (2017 urtea) ..... 8.040,85 €

**VI.-** Ezartzea aurreko kopuru hori ordaindu behar dela honela:

- Lehen ordainketa: Urtarrilaren 1-15 artean 4.020,43 €
- Bigarren ordainketa: Uztailaren 1-15 artean 4.020,42 €

**VII.-** Onartzea gainerako kopuruak, jasota daudenak aurreko kontuan izanik horien bosgarren koadroan, egoiliarren plazen prezioari buruz eta mantentze kuotari buruz.

**VIII.-** Ohartaraztea “CONSTRUCCIONES MURIAS, SA” enpresari, baldintzen agiriaren 38. artikuluan xedatutakoaren arabera, aseguru poliza bat sinatu behar duela, estaliko duena arrisku oro eraikinen eta haren instalazioen emakida aldiaren, zenbateko izendatu batez, 3.810.000 €-koa (Biteri) eta 1.550.000 €-koa (Laubide), hurrenez hurren, horren onuraduna izanik Udala, eragotzi gabe emakidadunak eskubidea duela ordainetan hartzeko haren kontura balio aseguruak eta ez amortizatuak.

Halaber, adjudikaziodunak bere gain hartuko du primak ordaintzea, eta ondorio horretarako jarri beharko ditu udal bulegoetan ordainagiri ordainduak, urtero (poliza hori noiz sinatu, hilabete horretan).

**IX.-** Ohartaraztea, era berean, 37. pasartean ezarritakoaren arabera, -“Ustiapena ikuskatzea”- emakidaren baldintza partikular, tekniko, ekonomiko eta juridiko-administratiboaren agiriarena, adjudikaziodunak, bi urtean behin, behartuta dagoela instalazioak ikuskatzera, txosten batekin, sinaturik teknikari gaituak, jakiteko zer egoeran dauden, eta bidaliko dio txosten horren kopia bat Udalari.

Ikuskatu beharko du eta aurkeztu Udalean 2017ko otsailaren 28a baino lehen.

**X.-** Onartzea Biteriko aparkalekuaren ustiatze tarifak, goian aipatuak, eta horiek indarrean sartuko dira 2017ko urtarrilaren 1ean eta indarrean egongo dira 2017ko ekitaldian, eta prezio horiek dira aplikatu daitezkeen gehienezko prezioak aipatu aldiaren.

**Tarifak:**

- 1.- Tarifa arrunta: 0,036 € /minutuko
- 2.- Tarifa bereziak:
  - a. Hileko alokairua, egunekoa eta berriztagarria (8:30 - 20:30, asteleheneetik zapatuta arte, bera barne).....67,82 €





Esp.-kodea: 2016SAPL0011

- b.- Hileko alokairua, gauekoa eta berriztagarria  
(20:30 - 8:30, astelehenetik zapatara arte, bera barne).....51,62 €
- c.- Asteko ordainketa (24 ordu).....42,62 €
- d.- Hileko abonua, berriztagarria (24 ordukoa) ..... 105,04 €

**XI.-** Eskuordetzea Tokiko Gobernu Batzarrean erabakiak hartzea aipatu kontratuaren exekuzioari dagokionez, aldaketa, erabaki, bahiketa eta lagapena denean izan ezik.

**M.UBARRETXENA (Lehendakaria):**

Puntu honetan interbentziorik?

**M.ZABALETA (EH-BILDU):**

Arratsaldeon denoi. Hiru komentario daukagu egiteko. Lehena da, egoera hau epaiketa batek blokeatu zauen moduan epaiketa batek desblokeatu dau eta hori sententzia irten denean ia desblokeatuta geratu da.

Bigarrena, herritarrak aparkalekuen gaia konpontzeko zain dauz ados gauz gu be bai baina urteetan itxita egon dan aparkaleku bat honen funtzionamendua aztertu gabe zabaltzearekin ez gatoz bat. Aparkalekuen gaiak hausnarketa bat eskatzen dau herriko aparkalekuak osotasunean hartzea eskatzen dau.

Ostegunean aurkeztutako mugikortasun planak hortarako tartea emango dozku bertan parkingaren erabileraren aztertuko dalako hori uste dugu behintzat.

Ondorioz, ez dugu argi ikusten Gabonetarako Laubideko parkinga zabaldu nahi izatea kontuan izanda Biteriko parkinga ez dela betetzen. Gainera, aurreko legealdian PNVk behin eta berriz eskatzen zauen Laubideko parkingaren irekiera horrekin bat gatoz guztiz.

Baina eskaera horrekin batera bertan dohain aparkatzea ere eskatzen zenuten eta orain lehen aipatutako azterketa egin barik ba Biteriko prezio bera aplikatzea nahi duzue

Pozik gauz egoera hau desblokeatu dalako bazelako ordua baina herriko aparkalekuen azterketa sakonago bat egin ondoren aparkalekuen funtzionamendua hobeto definitu beharra ikusten dugu eta horregatik abstenitu egingo gara.

**M.UBARRETXENA (Lehendakaria):**

Beste interbentziorik?



Esp.-kodea: 2016SAPL0011

### A.EZKURRA (EAJ-PNV):

Arratsaldeon guztioi alkate andrea zinegotziok pozten naiz Maialen behintzat berri hau positibotzat ikustea bai uste dugu benetan berri on bat dela, egia da, aparkatzearen arazoa dagoela Arrasaten, hori denon dakigu egia da eta bat gatoz, bat nator zurekin Laubideko parkinga zabalduaz ez dela dana konponduko ez?

Baina egia da baita daramagula daramala parking horrek 8 urte itxita eta zuk esan duzu auzitegitan prozedura konkurtsal bat, egia da, prozedura konkurtsal hori auzitegietan daramala 2014tik bakarrik, 2014tik ze gai honen inguruan bai gauza bat argitu nahi duguna bueno esatea hori 8 urteetan guk gainera gure programan behin eta berriz esaten genuen Laubideko parkinga zabaldu nahi genuela 2015ean udaletxe honetan sartu ginenean ekanean gure konpromisoa, gure ardura izan dela lan hori egitea urte bat daramagu bileretan gainera Alkateak berak bere gain hartu du lan hau hartzekodun lehiaketako administratzaileekin, bankuekin, Gespark berarekin guztiekin gestio guztiak egiten oztupo legal administratiboei erantzun bat emanez eta azkenean lortu da zabaltzea parkinga pozten gara zuentzat baita erabaki hona izatea.

Baina bai honen harira, EAJtatik argitu nahi dugu gai bat, argitu nahi dugu gai bat behin eta berriz gainera EH-bilduren komunikatu bat izan zen komunikabideetan guk ere hau aurkeztu genuenean komunikabideetan eta gainera sare sozialetan komunikabide ezberdinetan agertu dena ez?

Behin eta berriz, agertzen da edo agertu izan da gauza bat ez dena egia esaten 2003-2007 legealdian Ignacio Lakunzak osatzen zuen gobernuak hartutako erabaki oker baten ondorioa dela guzti hau eta ez da egia. Hori ez da egia, zeren eta erabaki hau ez zan 2003an hartu zan baina ez Lakunza jauna gobernuan sartu zenean badakizu noiz hartu zan zuen baimenarekin akta ekarri dut 2003ko martxoaren 27an non udal gobernu honetan Xabier Zubizarreta zen Alkate non zuetako norbait uste dut zinegotzi zela, orduan onartu zen pleno horretan onartu zen eta zuen baimenarekin irakurriko dut “propuesta de resolución del concurso público para adjudicar la redacción del proyecto de construcción, urbanización y explotación del complejo de aparcamientos de Laubide y Garibai” hau onartu zen ezker abertzalea zegoenean makro-proiektu hau ezker abertzalea zegoenean.

Urteetan eta urteetan esan ohi da EAJren makro-proiektu bat zala eta gehiago esango dut 2003ko udal pleno haretan EAJk aurka bozkatu zuen, alderdi sozialistak, EAJk eta alderdi popularrak, ezker abertzalea, izquierda unida eta EAK aldeko botoekin 12 boto alde, 8 aurka hau onartu zen, hau da, izan gaitezen zehatzak, zorrotzak historiarekin kronologiarekin hau ez da izan inoiz EAJren makro-proiektu bat ez EAJ sartu da 2015ean eta gu saiatu gara honi irtenbide bat topatzen zeren eta 2003an adostu zan 50 urteetarako kontzesio bat, hau da, concesión, horrek esan nahi duena da Bikandi enpresari gero Gespark bihurtu zana eman zitzaion 50 urteetarako kudeaketarako eskubide osoa. Hori da kontzesioa eta udaletxe honi orduan 2003an kostatu zitzaion edo zitzaigun 2.295.000 € oraingoa guzti honi erantzuna ematea udaletxe honi kostatu zaio 0.

Zero patatero eta orduan kostatu zitzaion 2.295.000 € eta esaten duzun tarifak, tarifa hoiek dira orduan jari zirenak ze kontzesio horretan daude “tarifas a aplicar en el parking rotatorio, por la primera media hora 0.57 en el 2003 y resto de las horas 0.99” eta orain da 1.20 koa, 0.21 hori ez da erabaki bat udaletxe honek hartzen duena zeren eta 2006an gai hau inauguratu zenean, egia da, Lakunzaren garaian badakizu



Esp.-kodea: 2016SAPL0011

zer gertatu zan obrak egin zirela eta Lakunza jaunak egia da inauguratu egin zituela horregatik dago bere argazkia han baina berak tokatu zitzaiona zan kontzezio bat onartu zena martxoan beste alkate batek beste udal gobernu batek 50 urteetarako 2056 urterarte kontzezioa pasa da esku batetik bestera.

Ez da udalaren kontzesioa gustatuko litzaiguke baina hori posible izateko kontzesioan baita jartzen du udaletxeari kostatuko litzaiokeela horren jabegoarekin geratzeko 9 milioi ordaindu beharko genuke eta ez gaude prest eta horregatik egin duguna da bai batekin eta bai bestearekin egon lortu duguna da azkenean bankuak “que moviera ficha” esaten dana erderaz eta lortu da enpresa bat sortzea guzti hori martxan jartzeko erabaki aproposena da igual ez. Baina da 8 urte guztiz blokeatuta egon dan gai bat martxan jartzea eta izan da udal gobernu honen kudeaketa. Besterik ez. Mila esker.

#### **M.UBARRETXENA (Lehendakaria):**

Beste interbentziorik?

Ni bai gustatuko litzaidake esatea hau auzitegietan egia da auzitegietan 2004 urtetik dagoela enpresa quiebrara 2004an urtean joan zelako, 2014 urtean barkatu 2015 urtean gu gobernura sartu ginenean bai jarri ginen harremanetan bai bankuarekin bai hartzekodunen konkurtsoko administragaiekin, Gespark enpresa berarekin eta iritsi gara akordio batera eta epaileak eman duena izan da guk lortutako akordio horri oniritzia ez du esan nahi epaile batek erabaki duela zer egin behar den ez, epaileak eman dio argi berdea guk barruan lortutako akordio bati eta besterik esan barik bozketara pasatuko gara.

<b>Bertaratuak</b>	<b>20</b>	
<b>Aldeko botoak:</b>	<b>12</b>	<b>EAJ-PNV (8), PSE-EE (3) y IRABAZI (1)</b>
<b>Kontrako botoak:</b>		
<b>Abstentzioak:</b>	<b>8</b>	<b>EH-BILDU (6) y BALEIKE (2)</b>

Beraz, onartzen da.

#### **5.- ARRASATEKO BIZIGUNE PROGRAMAREN KUDEAKETARAKO ARRASATEKO UDALAREN ETA SURADESAREN ARTEAN LANKIDETZA HITZARMENA SINATZEKO PROPOSAMENA. (2016IING0029)**

Udal Plenoak, aho batez, Hirigintza, Ingurumen eta Mugikortasuneko Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

Eusko Jaurlaritzak BIZIGUNE izeneko programa kudeatzen du. Programa horren helburua da Erkidegoko etxebizitza hutsak mobilizatzea, eta batez ere bideratuta merkatu librean etxebizitza bat eskuratzeko baliabide ekonomiko nahikorik ez dutenentzat..



**Esp.-kodea: 2016SAPL0011**

Aipatutako BIZIGUNE programa sustatzeko eta garatzeko Arrasaten, 2004ko urriaren 18an sinatu zen elkarlanerako protokolo bat Arrasateko Udala eta Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Zerbitzuetako sailen artean.

Bertan, hitzartutako helburuak betetzeko, besteak beste, ondoko konpromisoak hartu zituen Arrasateko Udalak: Programari buruz informatzea, Etxeen onarpenerako prozedura hasi, Etxebizitzak esleipedunei erakustea, Bizigune programako Lurralde Arduradunarekin etengabeko koordinazioari eustea, langileria teknikoa eta administrazio-euskarria eskaini eta atxikiko du aipatu kudeaketa-tresna baliagarria izan dadin.

Kontuan izanda aldatu egin direla programa garatzeko izendatuta zegoen pertsonaren eginkizunak (dedikazio txikiagoa eskainiz aurretik adierazitako funtzioei) eta Debagoineko Mankomunitateak, SURADESAren bitartez ematen dituela BIZIGUNE programaren zerbitzuak bailarako beste herrietan, planteatu da, Arrasateko Udalak orain arte BIZIGUNE programari eskaini dizkion ardurak SURADESAK hartu ditzan bere gain.

Hori horrela, aipatutako funtzioak SURADESAk bere gain hartzeko baldintzak adostu dituzte Udalak eta entitate horrek, alde bien artean sinatu beharreko hitzarmenean jasoko direnak.

Ingurumeneko teknikariak egindako txostena ikusirik eta kontutan izanik hitzarmen hori sinatzeak ekarriko duela BIZIGUNE programa era batearatuari garatzea Eskualde mailan, hobeto aprobetxatuz dauden baliabide material eta pertsonalak, eta, bestalde, ez duela suposatuko, gaur egun, inongo koste ekonomikorik Arrasateko Udalarentzat.

Hirigintza, Ingurumen eta Mugikortasuneko batzordeak Udalbatzarrari honako proposamena egin dio:

**I.-** Arrasateko BIZIGUNE programaren kudeaketa SURADESAren esku uzteko lankidetzat hitzarmena sinatzea ontzat ematea, ondorengo klausulen arabera:

*“Lehenengoa.– Hitzarmenaren xedea.*

*Hitzarmen honen xedea da Arrasateko Udalaren eta Suradesaren arteko lankidetzat-erregimena arautzea, “Euskadiko Etxebizitza eta Lurra E.A.” eta Arrasateko Udalak 2004ko urriaren 18an sinatu zuten elkarlanerako protokoloan, BIZIGUNE programaren inguruan, Arrasateko Udalak hartutako betebeharrak Suradesak bere gain hartzeko.*

*Bigarrena.– Aldeen betebeharrak.*

*1.– Suradesaren betebeharrak:*

*a) BIZIGUNE “Etxebizitza Hutsaren programa” kudeatzeko tresna sortu eta finantzatuko da. Eginkizunak hauek izango dira:*

*1.- Programari buruz informatzea.*

*1.- Programari buruz informatzea.*

*2.- Etxeen onarpenerako prozedura hasi.*



Esp.-kodea: 2016SAPL0011

3.- Etxebizitzak esleipedunei erakustea.

4.- Bizigune programako Lurralde Arduradunarekin etengabeko koordinazioari eustea.

b) Suradesako bertako langileriatik beharrezkoa den langileria teknikoa eta administrazio-euskarria eskaini eta atxikiko du aipatu kudeaketa-tresna baliagarria izan dadin.

c) Publizitate kanpainak finantzatu, urtero.

d) BIZIGUNE programaren kudeaketarako bertako zerbitzuen eta Alokabidek ezarrita dituenen arteko koordinazioa sustatu eta erraztu behar du.

e) Alokabideri eta Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari udalerrian dauden etxebizitza hutsei eta horien gaineko pertsona titularrei buruzko datu guztiak emango dizkiote.

2.- Arrasateko Udalaren konpromisoa:

2.1.- Erakunde lankideari behar duen laguntza eta aholkularitza eskaintzea, hitzarmen honen arabera aurrera eraman beharreko jarduerak burutzeko.

2.2.- Programari buruzko espedienteak eskuratzeko baimena ematea. Datu pertsonalak ere eskura izango direnez, datu horietara sartzea beste hitzarmen baten bidez arautuko da.

*Hirugarrena.- Ordain ekonomikoa*

Suradesak, printzipioz, ez du inongo zenbatekorik jasoko hitzarmen honen ondorioz eskainitako lankidetzagatik; horrek ez ditu baztertzen etorkizunean bi aldeek har ditzaketan erabakiak.

*Laugarrena.- Iraupena*

Hitzarmen honek lau urteko iraupena izango du, sinatzeko unetik aurrera. Alderdiak ados jarriz gero, beste bi urtez luzatu ahal izango da.

Aldeetakoren batek bukatutzat jo ahal izango du urtebete igaro ondoren, eta urtero. Horretarako, urtea amaitu baino hilabete lehenago adierazi behar dio beste aldeari hitzarmena bertan behera utzi nahi duela.

Dena den, automatikoki deuseztatutzat joko da Eusko Jaurlaritzak BIZIGUNE programa kentzen badu.

*Bosgarrena.- Ez betetzearen ondorioak*

Aldeetako batek ez badu betetzen hitzarmen honetako edozein betebeharrak, besteak ahalmena izango du hitzarmena suntsiarazteko.

Aldeetako edozeinek errekerimendu bat jakinarazi ahal izango dio besteari, zerbait ez badu betetzen, betebeharrak edo konpromisoak bete ditzan hilabete epean. Errekerimendu hori jakinaraziko zaie jarraipen batzorde mistoko arduradunari eta gainerako sinatzaileei.

Errekerimenduko epea igarotakoan jarraituz gero ez betetzen, bidali zuenak jakinaraziko die sinatzaileei suntsiarazte zergatiaren konkurrentzia dagoela, eta ulertuko da hitzarmena suntsiarazita dagoela. Kausa horrengatik hitzarmena suntsiaraziz gero, sortutako kalteen ordainak izan daitezke, ez betetzeak kalte ekonomiko zuzenak ekarri baditu.

Seigarrena.- Jarraipen, zaintza eta kontrol mekanismoak hitzarmena exekutatze eta sinatzaileek hartutako konpromisoak betearazteko.



Esp.-kodea: 2016SAPL0011

*Mekanismo honek erabakiko du zer interpretazio eman eta zelan bete hitzarmena, arazoak daudenean.*

*Hitzarmen honekin lotutako arazo guztietan koordinazio egoki bat ziurtatze aldera, jarraipen batzorde misto bat sortzen da, zeina 2 kidek osatzen duten, SURADESAko Lehendakariak eta Arrasateko Alkateak hain zuzen ere.*

*Zazpigarrena.- Ordezko araudia*

*Hitzarmen honetan jasota ez dagoen guztiari Eusko Jaurlaritzako 316/2002 dekretua, abenduaren 30ekoa edo hori garatu edo ordezkatzen duena aplikatuko zaio.”*

**II.-** Alkateari, edo legez ordezkatzen duen alkate-ordezkaritari, ahalmena ematea hitzarmena sinatu dezan eta adostutakoa gauzatzeko beharrezko gestioak eta jarduerak egin ditzan.

## **6.-2017 URTERAKO ORDENANTZA FISKALAK ONTZAT EMATEKO PROPOSAMENA. (2016RBAR0035)**

Indarrean dagoen legeriak ezarritakoaren babesean, eta indarrean dauden ordenantza fiskalak aztertuta, alde EAJ-PNV (2) eta PSE-PSOE (1) udal taldeetako ordezkariak, kontra BALEIKE (1) ordezkaria eta abstentzioa EH-BILDU (1) eta IRABAZI (1) taldeetako ordezkariak, proposatzen zaio udaleko osoko bilkurari akordio hau hartzea:

**I- Behin-behinekoz onartzea espedientea 2017rako ordenantza fiskalak aldatzeko, zeinaren ezaugarri orokorrak diren:**

### **ZERGAK**

- Gehitzea JEZren udal koefizientea, 2,193tik 2,2ra (Gehitzea % 0,32koa)
- Gehitzea hirilurren balio gehikuntzaren gaineko zerga % 2, eta zerga tasa pasatuko da % 6,62tik % 6,7524ra.
- Aldatzea familia ugarien hobaria, eta onartzea hobari berri bat babes publikoko etxebizitzetarako, OHZn.
- Aldatzea ibilgailu hibridoaren hobaria, eta ezartzea gehienez ere 5 urte zerga onurarako.
- Onartzea hiru hobari berri, eta indargabetzea 10.a EIOZn.

### **TASA ETA PREZIO PUBLIKOAK**

- Gehitzea ur horniduraren tasa % 1.



Esp.-kodea: 2016SAPL0011

- Ez gehitzea zabor bilketako eta garraioko zerbitzuaren tasa, eta aldatzea konpostaren hobaria.
- Onartzea eraikinen ikuskatze teknikoaren agiria (EIT) izapidetzearen tasa berri bat
- Ez gehitzea tutoretzapeko etxebizitzaren zerbitzuaren tasa.
- Gehitzea gainerako tasak eta prezio publikoak, oro har % 2.

Zehazki hona hemen aldaketak:

### **OHZ.- ONDASUN HIGIEZINEN GAINEN ZERGA**

1.- Aldatzea familia ugarien hobaria, 50.000-80.000 € atalean, eta honela dago:

	DIRU-SARRERAK			
	0 € - 24.000 €	24.000 € 40.000 €	40.000 € 60.000 €	60.000 € 80.000 €
Familiak 3 seme-alabarekin	% 90	% 50	% 20	% 10
Familiak 4 seme-alabarekin	% 90	% 70	% 40	% 30
5 seme-alaba edo gehiago	% 90	% 90	% 60	% 50

2.- Ezartzea hobari bat, zergaren kuota osoaren % 15koa, babes publikoko etxebizitzetzi, baita ere, garajeei eta trastelekuei, horiei lotuta doazenean.

- Babes ofizialeko etxebizitzak, erregimen orokorrekoak.
- Babes ofizialeko etxebizitzak, erregimen berezikoak, edo etxebizitza sozialak.

### **JEZ.- JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEN ZERGA**

Onartzea 2,2ko udal koefizientea.

### **IGZ.- IBILGAILUEN GAINEN ZERGA**

1.- Aldatzea ibilgailu hibridoaren gaineko hobaria; zerga onura mugatzen da 5 urtera, lehen matrikulazio egunetik aurrera.

### **HIRI LURREN BALIO GEHIKUNTZAREN GAINEN ZERGA**

Gehitzea zerga tasa, % 6,62tik % 6,7524ra (gehitzea % 2)



Esp.-kodea: 2016SAPL0011

## EIOZ.- ERAIKUNTZEN, INSTALAZIOEN ETA OBREN GAINEKO ZERGA

1.- Onartzea hiru aldaketa berri, 15/89 Foru Arauak, eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zergari buruzkoa, 5. a) artikuluan xedatutakoaren babesean:

1.- Kuotaren hobaria % 95ean, eraikuntza, instalazio eta obretarako, birgaikuntza edo egokitzea denean (eraikuntza berria ez denean), Euskal Autonomia Erkidegoak egina bada hezkuntzako eraikinetan.

2.- Kuotaren hobaria % 95ean, eraikuntza, instalazio eta obretarako, birgaikuntza edo egokitzea denean (eraikuntza berria ez denean), Deba Bailarako Industrialdeak egina bada.

3.- Kuotaren hobaria % 95ean, obrak egiteko alde zaharreko eta haren errebaletako merkataritza lokaletako fatxadetan, zeinetan plan bereziak eskatzen dituzten obrak horiei egokitzeko.

2.- Indargabetzea 10. hobaria, zeinak hau zioen:

Etxebizitza eraikinak osorik gaitzeko esku-hartzeak sustatze aldera, ezartzea hobari bat % 80koa, halako obra integralak egiteko, osotasunean, betiere gaitu bada eraikin osoa.

Hala joko dira, behintzat, bermatzen badute eraikinaren energia eraginkortasuna igotzen dela "C" maila batera eta, aldi berean, konpontzen badituzte irisgarritasun problemak.

Hobari hau ezingo da pilatu aurreko beste edozein hobarirekin.

## UDAL TASAK

### A EPIGRAFEA: Hirigintza lizentziak ematearen jarduera.

Obra lizentzia:

.Kostua <10.000 € .....	62,40 €
.Kostua 10.000 - 40.000 € tartean .....	122,60 €
.Kostua 40.000 - 120.000 € tartean .....	425,30 €
.Kostua 120.000 - 250.000€ € tartean .....	829,40 €
.Kostua 250.000 - 500.000 € tartean .....	1.382,20 €
.Kostua 500.000 €-tik gora. ....	2.722,90 €

Lizentzia partzelak banandu eta bateratzeko:

. Hiri lurretan eta lur hiritargarrietan, lizentzia bakoitzeko .....	276,50 €
. Landa lurretan, lizentzia bakoitzeko .....	82,90 €





Esp.-kodea: 2016SAPL0011

Lehenengoz erabili eta okupatzeko lizentzia.

.Etxebizitza edo merkataritza lokala

Lehen 20 lokalak (bakoitza) ..... 55,30 €

siguientes (cada uno) ..... 34,60 €

.Lokala edo garajea edo trastelekua ..... 20,70 €

.Familia bateko eraikinak ..... 221,10 €

.Familia biko eraikinak ..... 332,00 €

.Industria < 500 m<sup>2</sup> ..... 380,20 €

.Industria < 500 m<sup>2</sup> ..... 753,30 €

**B EPIGRAFEA: Lizentziak ematea establezimenduak irekitzeko edo kontroleko administrazio jarduerak egiteko, baldin eta lizentzia eskakizunaren ordeztan bada adierazpen erantzulea edo alde aurreko komunikazioa.**

Onartzea titulartasun aldaketak daudenean, tasa kalkulatzeko EZ dela aplikatuko gehitzea, lokalaren azalerari dagokiona, a) atalak aipatzen duena, eta honela geratuko da:

a) Atala

a) Lizentzia emateagatik, irekitzeko, kontroleko jarduera administratiboak egiteko, edo lizentzia ematea jarduera hasteko.

- Tasa orokorra

KATEGORIA	€
Merkataritza (1)	524,50 €
Zerbitzuak (2)	744,30 €
Ostalaritza (3)	922,80 €
Industria (4)	1.230,00 €
Nekazaritza/Abeltzaintza	262,20 €

Lehenengo tarifak zuzendu egingo dira, lokalaren azaleraren arabera, zeinaren lizentzia eskatzen den:

. Merkataritzan, zerbitzuetan eta ostalaritzan:

Azalera bada 100 eta 500 m<sup>2</sup> artean, gehitzea % 100.

Azalerak badu 500 m<sup>2</sup> baino gehiago, gehitzea % 200.

. Industrian:

Yo entiendo que vuestra política populista os impulsa a este tipo de declaraciones pero bueno como he dicho antes el respeto y la seriedad tienen que estar por delante de intereses partidistas más cuando se os ha dado tiempo más que suficiente para presentar vuestras propuestas y me consta porque lo sé que vuestras propuestas antes del pleno anterior llegaron el viernes cuando el martes teníamos pleno a las tantas es verdad que habéis tenido vuestras problemas y no los discuto pero escudarse en el populismo en el verbo fácil para no cumplir con lo que el pueblo os ha ordenado que hagáis que es representar el pueblo me parece una tomadura de pelo una falta de respeto hacia al ciudadano. Nada más.

**E. BARBERENA (EH-BILDU):**



---

**Esp.-kodea: 2016SAPL0011**

---

Arratsaldeon denoi. Nik tonoa lasaitze aldera nahiz eta irakasle asko daz hementxe eserita eta nik uste dut irakasle tonu desberdinak dazela eta nik miresten doten irakasleen tonoa hartuko dut. Bueno %2ko igoera bat dau %30 esan duzue ezetz horrek esan nahi dau %70 baietz eta guk garrantzia ematen dotzagu igoera hau zerekin dagoen lotuta ez eta dau lotuta aurreko astean bildu zan nolabait finantzan euskal kontseiluan landu zan gai batekin foru aldundiek, gobernuak aurreikuspen baikorregia egin zituzten 2016ko zerga bilketaren inguruan eta hor arazo bat sortu da.

Azkenean rekaudazioa ez da izan espero zana eta horrek udalei diru bat itzultzea eskatuko dozku eta gu behintzat autokritika gutxi ikusi dugu aurreikuspen baikorregi horrek egin zituzten administrazioen aldetik. Are gehiago hartu denean neurri batzuk adibidez Gipuzkoan fortuna handien zerga kentzea non rekaudazio zati bati gainera uko egiten jakon ez.

Guk aurreko plenoan salatu genuen moduan formak eta bat egiten dut Oskarrek egin dauen kronologia orduetan eta moduetan gaurkoan beste aldera bai nahi dugu errekonozitu ogasun batzordean egon dan tonoa egon dan disposizioa Anuska zuk esan duzu hainbat akordioetara alegatu gara batzuk hasiera baten ostean egon dan prorrogan esan deigun beste batuetara ailegatu gara bai famili ugarien kasuan, bai auzo konpostaren kasuan eta bueno guk zentzu hortan hori baikorki baloratzen dugu eta ogasun batzordean bertan aurreratu genuen moduan gaurkoan EH-Bildu abstenitu egingo da.

Hemendik aurrera bai daukagu erronka bat dala gia honen inguruan bai formatan eta bai edukietan buelta bat ematea ze azkeneko hainbat albiste diela eta Arrasaten rekaudazio inportante batzuk jaitsi egin dira eta nik uste dut 2018rako buelta batzuk ematea komeni jakula eta gu hor egongo gara dispuesto buelta horrek emateko.

### **M.UBARRETXENA (Lehendakaria):**

Eskerrik asko, Eneko. Igor.

### **I.URIZAR (BALEIKE):**

Irakurri in gotzuet gure adierazpenak. Esan beharra daukagu egin ditugun proposamenak sinisten ez dugun eredu baten gainean egin ditugula eredu honek sor ditzakeen eraginak murrizteko asmoarekin.

Gure talde politikoak justizia soziala eta fiskalitate progresiboa oinarritzat dituen eredu baten sinisten du eta hau ez da islatzen gure ustetan inondik inora ordenantza hauetan. Hauek lantzeko prozesuak ere hutsune ugari ditu eta ez du hiritarren partehartze aktiboa eta burujabetzea sustatzen.

Baleike udal taldeak 5 emendakin egin zituen gobernu taldeak aurkeztutako ordenantza fiskalaren proposamenari, hauetatik lau kanpoan gelditu dira. Gure proposamenak familiei eta komertzio txikiei begira bideratu dira, hauen ahalmen ekonomikoari galera txikiena sortu nahian hauentzat tasak mantenduz eta ahalmen handiko enpresa industriei areagotuz.



---

**Esp.-kodea: 2016SAPL0011**

---

Gobernu taldearen xedea tasak hiritar guztioi berezitasunik gabe %2 igotzea orohar da. Inongo hausnarketarik egin gabe hauek hiritarrengan izango duten eraginean. Adibide garbia izan da etxebizitza tutelatuen kasua non gobernu honengatik balitz erabiltzaileei 14 € gehiago kobratuko zitzaien kontuan hartu gabe erabiltzaile talde honek dituen baldintza eta zailtasunak.

Eskertzen diogu gure emendakina onartu izana eta tasa hau ez igotzea baina gobernuaren inprobisazioa bai ikuskatzen da eta mahai gainean jarri nahiago dutela igoera homogoneoa guztioi ezarri bankuei zoru publikoa modu pribatuan erabiltzea kobratzea baino.

Aipatu ditugun arrazoi hauen ondorioz ezin dugu ordenantza fiskal hauei onespina eman prozesuarekin ez baigau de ados eta emaitzarekin are gutxiago. Inprobisazioa eta hausnartu gabeko ondorioak ezin ditugu onartu gure printzipiotako konpromisoak kontra bozkatzera behartzen gaitu eta bueno Oskarrek esan duena populismoa, populismoa ez bakoitzak bere etxean begiratu lehenago.

### **J.L MERINO (IRABAZI):**

Anuska espero que cuando vengas de profesora de la escuela pública no por la privada. Desde Irabazi Arrasate queremos recordar que nuestra bandera nunca ha sido apuntarnos a la carrera de ver que baja más los impuestos o quien los congela atendiendo a criterios partidistas sino que nuestro mensaje siempre ha sido y es que los impuestos deben garantizar la suficiencia de un sector público bien gestionado sin recortar ni reducir la calidad de los servicios públicos.

La revisión catastral por parte de Diputación Foral ya nos supone una importante reducción en los ingresos también la tendencia de menor recaudación en Gipuzkoa repercutirá en menor aportación del fondo foral a Arrasate. En Irabazi Arrasate nos habíamos fijado como objetivo conseguir los impuestos y tasas más progresivas, más justas, más concretas y más publicitadas.

Por ello hemos planteado una serie de enmiendas o propuestas de las que algunas han aceptado como la eliminación de la bonificación del IBI a viviendas tasadas así como modificar la tabla de bonificaciones a familias numerosas en el impuesto sobre vehículos de tracción mecánica se pretendía subir a los camiones un 4.3%. Por cierto cosa que no va a ocurrir. En el servicio de recogida de residuos sólidos urbanos se mantiene bonificación del 25% a las familias que realizan autocompostaje comunitario, eso sí con el compromiso de participar en su proceso remover y mezclar. Eso bueno es más o menos lo que hemos conseguido en estos acuerdos o en estas reuniones que hemos tenido.

Pero bueno también vamos a recordar en lo que no estamos de acuerdo. Sabemos que son normas de rango superior por eso nosotros las tenemos que decidir por ideología política. El no cobrar el IBI a la iglesia católica nos repugna. El no cobrar el IBI a los centros docentes privados también. En el que no se recupere el recargo del 50 % a la vivienda vacía cuando estamos hablando ahora mismo del programa Bizigune también nos enfada, no nos repugna nos enfada.

Por último queremos pedir que como ya hemos hecho en varias ocasiones en la Comisión de Hacienda que estas ordenanzas fiscales publiciten tanto como en los medios de comunicación en la web municipal y también por medio de un buzoneo en todo el municipio porque hemos visto que



---

**Esp.-kodea: 2016SAPL0011**

---

en la comisión de hacienda de que casi todas reclamaciones que vienen por parte de los ciudadanos suelen ser por desconocimiento o por falta de información. Entonces nos ahorraríamos muchas reclamaciones.

Ya le pase un modelo a Anuska y a Ander y quiero que se tenga en cuenta. Con todo lo dicho, nos vamos a abstener.

**M.UBARRETXENA (Lehendakaria):**

Beste interbentziorik?

Nik bai esatea Juan Luis con el tema de zuk esan duzu etxebizitza hutsak zer den aurreko plenoan ere hitz egin genuela ba zer kontsideratzen den etxebizitza hutsa eta zer ez legalki oraindik ez dago zehaztuta eta zu gelditu zinen kriterioak pasatuko zenizkigula eta bueno ahal duzunean ba eskertuko genizuke ba pasatzea aurreko plenoan esan genuen bezala.

Besterik barik bozkatzera pasatuko gara.

**J.L MERINO (IRABAZI):**

Esta casi elaborado lo pasaremos por la Junta de Portavoces como habíamos quedado y miramos en la junta.

**E.BARBERENA (EH-BILDU):**

Ez naukan gaia aipatzeko asmorik baina ia behin irten dela bai Bizkaiko Foru Aldundiak maiatzean esango neuke eta berriki Arabako Foru Aldundiak onartu dabe arau bat Bizkaiko eta Arabako udalek errekaru hau onartua izateko orduan badirudi dela kriterio bat beste leku batzuetan ere balio duena funtzionatzen duena.

Orduan zigor moduan ikusten dena hemen ba agian beste leku batzuetan eta adibidez Bizkaikoak badakit albistea agertu zelako prentsan talde guztiak alde edo behintzat abstenitu egin ziren inor ez zuen aurka bozkatu. Orduan gaiak badu mamia eta agian buelta bat gehiago eman behar diogu

**M.UBARRETXENA (Lehendakaria):**

Etxebizitzen edo etxebizitza hutsen errekarua dela eta nik uste dut denok dakizuela bilera guztietan agertu den bezala aurrekontuetan partida bat ezarriko dugula alokairuak bultzatzeko batez ere Arrasateko gazteen alokaruei laguntzeko eta gazteei laguntzeko ere beraien etxebizitzetatik beraien gurasoen etxeetatik bueno ba independentzia bat lortzen eta momentuz behintzat era positibo batean saiaturako gara bueno alokairuaren bultzada bat egiten eta besterik barik. Bozketara pasatuko gara.





Esp.-kodea: 2016SAPL0011

Bertaratuak	20	
Aldeko botoak:	11	EAJ-PNV (8) eta PSE-EE (3)
Kontrako botoak:	2	BALEIKE (2)
Abstentzioak:	7	EH-BILDU (6) eta IRABAZI (1)

Beraz, onartzen da.

Hurrengo puntura pasatzeko bozeramale batzordean komentatu egin genuen bezala zazpigarren puntuan Arrasateko hiri antolamenduaren egitamu orokorraren onarpenaren aurka Orange Espagne, SAU enpresak jarritako administrazioarekiko auzi errekurtsioan agertzeko proposamena sartzea bozkatu behar dugu gai ordenenean sartzeko bueno hitz eginda daukagu aurretik prozedura izan dela errekurtsioa etorri zaigulako orain eta 20 egun bakarrik eman dizkigutelako errekurtsioa sartu ahal izateko, orduan eskertuko nizueke bozkatzea puntu hau sartzearen aldekoak?

Bueno aho batez onartzen da eta orduan zazpigarren puntura pasatuko gara.

#### **A.GORROTXATEGI (Idazkaria):**

Hasteko komentario txiki bat eta barkamena ze akats bat dago ez materian baizik eta izenetan ze eduki dugu errekurtsio bat lehenengo Vodafonena eta gero Orangena eta nahastuta daude. Orduan jakin errekurtsio hau dela Orangena eta aurretik Vodafonena ba bueno zuzenketa bat egingo dugu diktamenean gainontzean materia berez, ondo dago.

Euskarazkoan ia dena ondo dago baina aurreko errekurtsioari erreferentzia egiten dionean ez da zuzena. Sentitzen dut.

#### **7.- ARRASATEKO HIRI ANTOLAMENDUAREN EGITAMU OROKORRAREN ONARPENAREN AURKA “ORANGE ESPAGNE, SAU” ENPRESAK JARRITAKO 487/2016 ZK.KO ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI ERREKURTSIOAN AGERTZEKO PROPOSAMENA. (2016HJKA0004)**

Udal Plenoak, aho batez, Hirigintza, Ingurumen eta Mugikortasuneko Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

Ikusita 487/2016 prozedura arrunt zenbakidun administrazioarekiko helegitea jarri duela “ORANGE ESPAGNE, SAU” enpresak EAeko AUZITEGI NAGUSIAREN ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIEN SALAREN aurrean, Arrasateko Hiri Antolamenduaren Egitamu Orokorraren onarpenaren aurka.

#### **IKUSIZ hauek guztiak:**



Esp.-kodea: 2016SAPL0011

- Udalbatza honek obligazioa duela behar diren legezko egintzak erabiltzeko, bere ondasunen eta eskubideen defentsan.

**KONTUAN IZANIK hauek guztiak:**

- Administrazio Auzigaietako Jurisdikzioa arautzen duen 29/1998 Legearen 50.1 artikuluan xedatutakoari jarraituz, errekurtsio horri buruzko administrazio dosierra bidaltzeko egin zuen erreklamazioak, HOGEI EGUNeko epean, Donostiako Administrazio Auzigaietako Epaitegiak egindakoa, formaz epatzeko balio diola Udalari.
- Arrasateko Udalak daukan informazioaren arabera auzi honetan aurkaratutako administrazio jardunarekin zer ikusia duen beste administrazioarekiko auzi-errekurtsio honen berri duela:  
VODAFONE ESPAÑA, SAUK EAeko AUZITEGI NAGUSIKO ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIEN SALAn jarritako 437/2016 prozedura arrunta.
- Auzi jartzailea eta auzitara eramandako Administrazioaz gain, administrazio dosier honetan ez dela jasotzen beste interesdunik tartejarritako egintza mantendu dadin.
- Toki Araubidearen Oinarri-Arauak arautzen dituen 7/85 Legearen 22.2.) artikuluan aurreikusitakoa.

Hirigintza, Ingurumen eta Mugikortasuneko batzordeak Udalbatzarrari honako akordioa hartzea proposatu dio:

**LEHENA:** EAeko AUZITEGI NAGUSIAREN ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIEN SALAn “ORANGE ESPAGNE, SAU” enpresak jarri duen 487/2016 zk.dun administrazioarekiko auzi errekurtsioan agertzea; horren ondorioz, administrazio dosierra bidaltzea auzitegiari.

**BIGARRENA:** Adieraztea Epaitegiari Arrasateko Udalak egintza honekin lotutako hurrengo administrazio auzigaietako errekurtsioaren berri duela:

- VODAFONE ESPAÑA, SAUK EAeko AUZITEGI NAGUSIKO ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIEN SALAn jarritako 437/2016 prozedura arrunta.

**HIRUGARRENA:** Juan Landa Mendibe eta Luis Urkiza Ugarte “EKAIN” lege aholkularitzako abokatuen esku uztea Udal honen interesen defentsa, PA 487/2016 zk.ko administrazio auzigaietako errekurtsioan.

Eta ordezkari prokuradore hauei: M<sup>a</sup> Luisa Linares Farias andreari, Donostiakoa, Alberto Arenaza Artabe jaunari, Bilbokoa eta Enrique de Antonio Viscor jaunari, Madrilekoa.

**8.- ARRASATEKO UDAL HARRERA PROTOKOLOA: BEHIN BETIKO ONARPENA EMATEKO PROPOSAMENA. (2015GGIZ0068)**



Esp.-kodea: 2016SAPL0011

Udal Plenoak, aho batez, Gizarte Ongizateko Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

Udal Plenoak, 2016ko apirilaren 19an egindako bilkuran, besteak beste, akordio hau hartu zuen:

**“LEHENENGO.-** *Arrasateko Udal Harrera Protokoloari hasierako onespena ematea (Ikus 1.eranskina).*

**BIGARREN.-** *Espedientea jendaurrean erakusgarri izango da 30 egunez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratzen denetik, egoki irritzitako erreklamazioak eta iradokizunak aurkez ahal ditzaten interesatuek.*

*Epe horretan erreklamaziorik zein iradokizunik aurkeztu ezean, protokoloa behin betikoz onartutzat joko da, eta testu osoa argitaratuko da.*

**HIRUGARREN.-** *Onartu berri den Protokoloak aurreikusten dituen jarduera, funtzionamendu arau eta irizpideak abian jartzea, betetzea eta betearaztea dokumentuan zehazten diren udal departamentuen ardura izango da.*

**LAUGARREN.-** *Erabaki hau udal zerbitzu eta departamentu hauexei jakinaraztea: BAZ, Gazteria saila, Euskara saila, Enplegu saila, Berdintasun saila, Gizarte Zerbitzuak, Hezkuntza saila, Kultura saila, Udal Liburutegia, Kirol saila, Udaltzaingoa eta Alkatetza.”*

Horren ondoren, 2016ko maiatzaren 4ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratu zen, espedientea jendaurrean zegoela adieraziz hogeitahamar eguneko epean, interesdunei alegazioak eta iradokizunak aurkezteko aukera emanez.

Informazio publikoko epean EH Bildu udal taldeak iradokizunak jasotzen zituen idatzia aurkeztu zuen (2016-06-06an, 6332 sarrera erregistroa).

Aurkeztutako proposamena Gizarte Zerbitzuen batzordean aurkeztu zen. Zentzu horretan, Gizarte Zerbitzuen saileko aniztasun teknikariak proposamen hori aztertu zuen. Eta horretaz gain, proposamen teknikoa ere aurkeztu zen batzordean. Gaia Gizarte Zerbitzuen batzordean jorratu da, eta ondorioztatu da, udal talde guztien adostasunarekin, harrera protokoloa behin betikoz onartzeko falta dena dela koordinazioa eta jarraipena egiteko prozedura argia zehaztea. Zentzu horretan, hainbat proposamen eta agiri esku artean aztertu ondoren batzordean, udal talde guztien adostasunarekin ere, egokiena ikusi da bi jarraipen talde sortzea, bata teknikoez osatutakoa, udal protokoloaren jarraipena soilik egingo lukeena, eta beste talde zabalago bat, bai partaidetzari dagokionez, baita helburuei dagokionez ere.

Hori guztia ikusita, Gizarte Zerbitzuen batzordeak Udal Plenoari proposatzen dio ondorengo erabaki hau har dezala:

**LEHENENGO.-** Arrasateko Udal Harrera Protokoloa behin betikoz onartzea (Ikus 1. Eranskina). Zehaztu protokoloak, hasierako onarpena jaso zuen testuaz gain, ondoren jasotzen den testua jasoko du 9. atalean, “*Koordinazio eta Ebaluazio irizpideak*” azpitutuluaren bukaeran:



Esp.-kodea: 2016SAPL0011

9.- (.....)

## KOORDINAZIO BATZORDEA (KB)

### *Helburuak*

Harrera Protokoloaren Koordinazio Batzordeak honako helburuak izango ditu:

1. Udal sail guztietatik, Arrasatera bizitzera datozen pertsoneri harrera egokia egiten zaiela bermatzea, hutsuneak antzeman eta horiek betetzeko metodologiak proposatu eta gauzatzea. Berrikuspen horretan kontuan hartu beharreko irizpideak honako hauek lirateke:
  - Biztanle berriek harrera jasotzen dutela konfirmatu, ezezkoaren kasuan metodologia aldatu.
  - Teknikari bakoitzak bere funtzioak betetzen dituela ziurtatu.
  - Harrera instituzionala osatzeko eragileen parte hartzea bermatu.
  - Sailen arteko elkarlanak.
  - Biztanle berrien iritzia jaso harrerari dagokionean eta beraien beharretara egokitu.
2. Aniztasunaren ikuspegia arlo guztietako zerbitzu eta programen sorreran eta garapenean txertatzen dela ziurtatzea, herritar guztien beharrak aintzat hartuz eta horiekiko zerbitzuak egokituz.
3. Sail bakoitzaren egitasmoak elkar jartzea eta horien arteko elkarlan aukerak aztertu.
4. Bizikidetzeta lortzeko, elkar ezagutza eta elkar aitortza bultzatzen duten jarduerak sustatzea.

### *Partaideak*

- Biztanleen Arreta Zerbitzuko (BAZ) teknikaria.
- Harrera, orientazio eta formazio zerbitzuko dinamizatzailea.
- Gazteria Saileko teknikaria.
- Euskara Saileko teknikaria.



---

Esp.-kodea: 2016SAPL0011

---

- Enplegu eta Tokiko Garapen Saileko teknikaria.
- Berdintasun Saileko teknikaria.
- Gizarte Ongizate Saileko teknikaria.
- Hezkuntza Saileko teknikaria.
- Kultura Saileko teknikaria.
- Liburutegiko teknikaria.
- Kirol Saileko teknikaria.
- Udaltzaingoa.

#### ***Bileren maiztasuna***

Batzordea urtean gehienez 3 aldiz bilduko da:

- Urte hasieran izango da lehenengo bilera, non sail bakoitzak urteko plangintza eta aniztasunaren trataera azalduko duen. Sailen arteko elkarlan aukerak aztertuko dira.
- Uda aurretik lehenengo seihilabeteko balorazioa egingo da, hutsuneak aztertu eta hobekuntzak planteatuko dira.
- Urte amaieran Harrera Protokoloaren urteko balorazio orokorra egingo da, eta hurrengo urterako hobekuntzak aztertuko dira.

### **ANIZTASUNA ETA ELKARBIZITZARAKO KONTSEILUA (AEK)**

#### ***Helburuak***

1. Protokoloaren betetze mailaren jarraipena egitea, hutsuneak detektatuz eta hobekuntzak proposatuz.
2. Sail bakoitzari egoki ikusten diren, aniztasuna eta elkarbizitzaren inguruan landu beharreko egitasmoak proposatu.
3. Sailek egindako egitasmo-proposamenak baloratzea eta erabaki politiko mailara eramateko adostea, kasuan kasuko Batzorde informatibora bideratzeko
4. Protokoloa aberasteko ekarpenak egitea.

#### ***Partaideak***



Esp.-kodea: 2016SAPL0011

- Ongizate Saileko Burua.
- Aniztasun teknikaria.
- Alderdi guztietako ordezkariak.
- Eragile sozialak:
  - Ekin Emakumeak Elkartea.
  - Elkarhezitzen.
  - IMME emakume musulmandarren elkartea.
  - Caritas
  - Arizmendi ikastola, Herri Eskola eta Arrasate Institutoa.
  - Txatxilipurdi
  - SOS Arrazakeria.

### ***Bileren maiztasuna***

Urtean bi bider batuko litzateke:

- Aurrekontuak lantzeko garaian, hurrengo urteari begirako egitasmoak adosteko eta kasuan kasuko batzordera bideratzeko, tramita ditzan.
- Ekain aldera, protokoloaren jarraipena egiteko eta urteko egitasmoen betetze maila ebaluatzeko.

## KRONOGRAMA

NOIZ	BATZORDEA	ZERTARAKO
	KB	<ul style="list-style-type: none"><li>• EGITASMOAK ELKAR JARRI</li><li>• KOORDINAZIOA ETA ELKARLANA LANDU..</li></ul>



Esp.-kodea: 2016SAPL0011

- |     |   |
|-----|---|
| AEK | <ul style="list-style-type: none"><li>• URTEKO EGITASMOEN GARAPENA AZTERTU</li><li>• SAILEN KOORDINAZIOA AZTERTU</li><li>• EKARPENAK LANDU</li></ul>  |
| KB  | <ul style="list-style-type: none"><li>• EGITASMOEN GARAPENA AZTERTU</li><li>• KOORDINAZIOA ETA ELKARLANA EBALUATU</li><li>• NEURRI ZUZENTZAILEAK HARTU..</li></ul>  |
| KB  | <ul style="list-style-type: none"><li>• URTEKO KOORDINAZIO ETA ELKARLANA EBALUATU</li><li>• ABIAN DIREN EGITASMOEN GARAPENA AZTERTU</li><li>• NEURRI ZUZENTZAILEAK HARTU</li><li>• HURRENGO URTERAKO EGITASMOEI BEGIRAKO LANKETA HASI...</li></ul>      |
| AEK | <ul style="list-style-type: none"><li>• URTEKO EGITASMOEN GARAPENA AZTERTU</li><li>• EBALUAZIOA EGIN</li><li>• HURRENGO URTERAKO EGITASMOAK AZTERTU ETA ADOSTU ERABAKI POLITIKO MAILARA BIDERATU (HURRENGO EKITALDIKO AURREKONTUEI BEGIRA)...</li></ul> |

**BIGARREN.-** Erabaki hau udal zerbitzu eta departamentu hauexei jakinaraztea: BAZ, Gazteria saila, Euskara saila, Enplegu saila, Berdintasun saila, Gizarte Zerbitzuak, Hezkuntza saila, Kultura saila, Udal Liburutegia, Kirol saila, Udaltzaingoa eta Alkatetza.”

#### **I.ARTOLA (EH-BILDU):**

Arratsaldeon denoi. Gai honen inguruan puntu pare bat edo gauza pare bat nabarmendu batetik protokolo honek garbi erakusten dauela ba posible dela alderdi guztien adostasunarekin gaiak aurrera ateratzea beti ere batzordeetara gaiak garaiz eramaten badira eta borondate politikoa dauenean danok elkarrekin gauzak landu eta patxadaz aztertzeko eta aurrera eroateko. Hori batetik.



---

**Esp.-kodea: 2016SAPL0011**

---

Pozten garelara behingoz ahalako egoerara iritsi garelako eta ia prezedente moduan aurrera begira prezedente bat dan eta bestetik be pozten gara idazkariak esan dauen moduan, gaur okerrik ezean, aho batez onartuko gauen protokolo berri honen oinarria gure ekarpen bat egon delako.

Guk apirilean komentatu gauen guretako hanka motz geratzen zala gai horretan protokoloa ezinbestekotzat jotzen dugulako eragile sozialek partehartzea, zer esana eta bertan inplikazio zuzena edukitzea eta 6 hilabeteetako gizarte zerbitzuetan bileraz bilera eta alderdi guztien ekarpenak aztertuz eta kontrastatuz aniztasun teknikarien ekarpenak kontuan hartuta be hartuz eta denon artean adostu dauen azkeneko testuarekin asko aberasten dugula berez protokoloa.

Orduan iruditzen jaku ba danok zoriontzeko gazela eta behingoz eta bueno dana besterik barik gure izenean pozten garelara.

**M.UBARRETXENA (Lehendakaria):**

Eskerrik asko Itxaro beste interbentziorik?

## **9.- ALKATETZAKO EBAZPENEN BERRI HARTZEA**

### **10.- GALDE-ESKEAK.**

**M.UBARRETXENA (Lehendakaria):**

Galde eskeak badaude?

**I.ARTOLA (EH-BILDU):**

Orain dela hilabete batzuk udaberrian edo uda partean oker ez banago galdetu gotzugin ea zertan zauen neguko aterpetxean gaia. Harrez gero, ez dugu ezer jakin batzordean ere ez dugu berririk eduki eta gureko genuke harrez gero, ze pauso eman diren eta gaia zertan dauen jakitea. Eskerrik asko.

**M.UBARRETXENA (Lehendakaria):**

Azkenean hor ba gizarte zerbitzuen mapa berria Gipuzkoan decreto cartera egon zan legea Eusko Jaurlaritzan horrek marrazten dau gizarte zerbitzuen mapa berria Gipuzkoan eta hor daz hainbat zerbitzu non mankomunatuak izan behar diren eskualdeka eman behar diren zerbitzu hoiek.





---

**Esp.-kodea: 2016SAPL0011**

---

Eta neguko aterpetxea da bueno ba mankomunitate moduan eman behar dugun zerbitzu hori beste zerbitzu desberdinen artean horretarako ere funts bat egongo da udaletxean artean banatzeko batez ere eskualdeka zerbitzu hauei aurre egin ahal izateko.

Orduan guk mankomunitatean gure gizarte zerbitzuetako eskualdea eta mankomunitatean presenta gauden udaletxeen kopuru edo udaletxeak gara berdinak daukagu gauza positibo hori. Orduan mankomunitatean gu ia lanean gaude, gai honen inguruan batez ba funtsa iruditzen zaigulako mankomunitatearen bitartez kudeatu beharko dugula danon artean eta jakiteko ere udaletxe bakoitzak ze zerbitzuri egin diezaiokeen frente.

Guk pentsatzen dugu Arrasatek guk neguko aterpetxeari frente egin ahal diogula non beste leku batean. Zergatik dagoen lekuan momentu honetan fuera de ordenación dagoelako eta hori bota egin behar delako plan generalaren arabera horregatik edo horretarako zer egiten ari gara permuta bat jartzen ari gara aurrean Gipuzkoako Foru Aldundiarekin Hondarribia kalean dagoen etxe batekin eta gure asmoa da edo gure planteamendua izango da mankomunitatean Arrasate prest dagoela neguko aterpetxea izateko eta lekua ere bueno ba seguraski han goian izango dugula leku apropos bat.

Hori bai lortu behar duguna da denon adostasuna mankomunitatean eta erabaki behar da ere funts horretan zelan distribuidu zelan egin diru horren repartoa. Orduan udaletxe guztiak gaude Gipuzkoako udaletxe guztiak gaude gai honekin ze gizarte zerbitzuaren mapari aurre egin behar zaio eta hor ezinbestez eman dugun zerbitzu batzuk die baina honek asko aldatzen dau egoera ze orain era mankomunitate batean eman behar ditugu zerbitzuak eta esate baterako neguko aterpetxea ez zen izango Arrasaterako baizik eta bailarari eman beharko litzateke zerbitzua. Orduan lanean gaude baina mankomunitate mailan ari gara lanean.

Beste galderarik badago?

**J.L MERINO (IRABAZI):**

Dos temas. El primero el 12 de julio pasado aprobamos en este ayuntamiento una moción por un municipio adhiriéndonos a la red de municipios libres de tráfico de mujeres y niñas con motivo de la explotación sexual ¿no?

Eso fue el 12 de julio, el 23 de septiembre ha sido la primera asamblea de esa red de municipios en Santa Coloma de Gramanet en el cual se han puesto de Euskadi, por ejemplo, esta Barakaldo, la gran mayoría son ayuntamientos que son catalanes bueno Diputación de Sevilla hay mucha os pasaré el acta nos han mandado el acta que pasaré.

En ese se preguntaban en esa reunión en esa asamblea que tipo de acciones habían tomado en cada municipio y tal bueno yo he recuperado la moción ¿no? El primer y el segundo punto decía el ayuntamiento se adhiere a la red de ciudades libres de tráfico y en la segunda ponían nuestro ayuntamiento diseñara una campaña periódica para sensibilizar y convencer a las mujeres visibilizando al denominado eufemísticamente cliente que se serian un tipo de campañas.



---

**Esp.-kodea: 2016SAPL0011**

---

Quisiera saber si ya se ha tomado algo alguna medida se ha hablado con alguna con el departamento con Emakume txokoa.

**A.EZKURRA (EAJ-PNV):**

Galdera horren harira gaia konkretuki eta gero baita mozioa honen inguruan gogoeta bat baita luzatu nahi nuen eta nahiz eta hurrengo bozeramale batzordean agian tratatu genezake gaia era luzeago batean. Uste dut ez dakit Anderrek esango dit aste honetan daukazute batzordea Emakume gaia jorratzen den batzordea EAJtatik gure proposamena izango litzateke mozio honetako gai hau gainera Emakume izan da gai konkretua zehaztua Emakume lantzen dan komisio horretatik bideratzea ez?

Eta mozio horretan agertzen ziren puntu horrek batzorde horretan jorratu daitezten eta landu deitzen hori mozio konkretu horren inguruan.

Dena dela, bai uste dugu dela gai bat agian bozeramale batzordean tratatzeko gaia izango litzake dinot bai uste dugu bueno udaletxe honetan mozio ezberdinak etortzen direla mahai gainera alderi politiko desberdinetatik, talde ezberdinetatik eta gero mahai honen bueltan asko onartzen dira beste batzuk ez eta onartzen direnak, egia da, puntu zehatz batzuk izaten dutela non udalaren gure gestioaren barruan dihoazten eta gai hoiek egiten dira baina bai uste dugu agian ona izango litzatekeela, batez ere mozio hauek ez daitezten geratu “en tierra de nadie esaten dana. Benetan mozio hori aurkeztu duten taldeak, aurkezten duten pertsonak hoiek talde hoiek izan dadila arduraduna gai hori jorratzeko izan dadila jarraipena egiten diotenak, eta bueno pixkat horren gainean nahiz eta gero komisio ezberdinetan landu, era ezberdinetan landu, eta noski udalak dauzkan errekurtsio tresna guztiak horren baitan jarriaz nola ez baina bueno izan daixen pixkat guztion lana ze azken finean geratzen dira egia da ez daukatena, mozioak ez daukate sustengu legalik, ez daukatelako baina bueno benetan zentzuzkoa danean eta horrela uste dugu dala zeren eta osoko bilkura honetara etortzen dira eta guk hartzen dugu erabaki horiek benetan erabaki horiek haratago joan daitezela eta izan gaitezeela guztiok arduradun ba proposatzen ditugun gaiekin baina dihoadan bezala botatzen dizuet ba zure galdera izan dalako baina uste dut agian era lasaigo batetan hurrengo bozeramale batzordean tratatu daitekeen gaia dela. Besterik ez.

**M.UBARRETXENA (Lehendakaria):**

Beste galderarik badago?

**J.L MERINO (IRABAZI):**

Bien estoy de acuerdo que el que presente la de hecho lo hago. Las mociones intentamos llevar el seguimiento de que se cumplan ¿no? En lo posible. Bien otro tema que tengo en mente hace tres años el día 15 de octubre se cerró Fagor electrodomésticos me preocupa ahora la situación de Cata.

Cata ha entrado en ERE dos cocción y otra sección dos secciones han entrado afectan a 200 y pico trabajadores. Este ayuntamiento se ha puesto en contacto con la dirección, con el comité de empresa ¿Qué información tenemos?



---

**Esp.-kodea: 2016SAPL0011**

---

**M.UBARRETXENA (Lehendakaria):**

Bueno eskertzen dizut galdera zeren eta Cataren notizia albisteetan agertu zenetik inor ez da etorri nire bulegora ezer galdetzera. Denok esaten dugu Enplegua dela oso garrantzitsua baina inor ez da etorri nire bulegora galdetzera, ez telefono deirik inork ez dit egin, ez emailik ez dit inork bidali gai honen inguruan eta ia aprobetxatzen dut esateko beti itxoiten dugula plenoko galde eskaeretara baina nire bulegoa hor dagoela eta irekita dagoela eta edozein galdera baldin badaukazue etorri eta galdetu ez daukazue zertan itxoin behar plenoko galde eskaeratarara zer da goiena telebista hemen dagolako?

Ni hor nago eta nire taldea ba etorri, galdetu, hitz egin horretarako gaude eta zure galderari erantzunez orain dela bi aste jarri ginen kontaktuan alde batetik Fagor CNArekin eta beste alde batetik Eusko Jaurlaritzako Arantza Tapiaren departamentuarekin.

Arantza Tapiak berak deitu ninduen lehengo astean pertsonalki esanez berak lehengo astean edukitzekoa zala bilera bat beraiekin jakiteko zein zen benetako egoera eta nik neuk enplegu zinegotziarekin ostegun honetan goizeko bederatzi terdietan daukagu bilera Fagor CNAn zuzendaritzarekin esplikatzeko nola dagoen egoera.

Lehengo astean ezin izan ziguten bilera eman esan zigutelako aurrekontuekin oso liatuta zebiltzatela baina ostegun honetarako daukagu hitzordua eta esan bezala orain dela bi aste notizia ikusi genuenean komunikabideetatik enteratu ginen segituan jarri ginen kontaktuan alde batetik enpresa berarekin eta beste alde batetik eusko jaurlaritzarekin.

Bai Juan Luis.

**J.L MERINO (IRABAZI):**

Si ¿y con el comité de empresa?

**M.UBARRETXENA (Lehendakaria):**

Enpresa komitearekin oraindik ez gara jarri harremanetan baina jarriko gara. Lehenengo enpresaren bertsioa entzun nahi dugu

**J.L MERINO (IRABAZI):**

Respecto al reproche que me has hecho de si está Goiena. Es lo que menos me importa, me importa más de lo que te estoy hablando y tú como responsable máxima de este ayuntamiento la información podía venir de tu parte y no venir a preguntarte

**M.UBARRETXENA (Lehendakaria):**

Informazio bi aldeetan da eta esaten doten bezala ni hor nago eta benetan kezka baldin badaukazue ba etorri eta galdetu edo zuen aldetik kezka erakutsi.



---

**Esp.-kodea: 2016SAPL0011**

---

Zuek niri kexa ez baldin badidazute adierazten informazioa emango nizueke beraiekin bilera izan eta gero osteguneko bilera pasatu eta gero baina ia ke galdera egiten duzun plenoan esan ni hor nagoela eta edozein egunetan etorri zaizketeela galderak egitera eta ostegunean eduki genuela bozeramale batzordea eta bozeramale batzordean inorrek ez zuela gaia aipatu.

Beste galdera eskaerarik badago?

Bueno orduan gaurko plenoari amaiera emango diogu. Eskerrik asko denoi.

Eta beste gairik ez dagoenez, Udal Plenoburuak, arratsaldeko 19:10tan, amaiera ematen dio bilkurari. Eta nik Idazkariak hori guztia ziurtatzen dut akta hau jasoz.

Arrasaten, 2016ko urriaren 25a

IDAZKARIA

LEHENDAKARIA

Amaia Gorrotxategi Zubizarreta

María Ubarretxena Cid